

---

---

## JUANTXO-TXIKI OITURAREN FRUITUA

---

---

Juantxo-txiki be abereen antzera oitu egiten da. Zer egiñaz, zertan oitzen da. Ez al dozuz zirkoetan abereak ikusi, zenbat gauza arrigarri egiten dituen? Bein eta barriz gauza berbera egiñaz, aizkenerako ikasi.

Zer nai dozu Juantxo-txikik egunen batean egitea?

Gaurtik asi gauza orreik egin-arazten, oitura sortu arte. Gerora errez egingo ditu.

Zergaitik ez irakatsi onak badira berarentzat eta besteentzat?

\* \* \*

Erri bakoitzak izan oi ditu jaki bereziak. Gure artean, angulak eta txipiroiak, esate baterako. Umetatik ikusi eta probatu ba'dozuz, zuretzako jakirik onenetakoak izango dira; baiña, gurera kanpotik datozenentzako ez da ala izaten. Ikusiarekin bakarrik, atzera egiten dabe. Izan be, zein ez da ikaratuko tximiñoiek dakarten baltza ikusita? Zeiñeri ez dautso nazkarik emango, kaxuela batean ateratzen dituen mamorro zuri areik?

Lenengoz ikusten dabezanak, bai angulak eta bai txipiroiak, atzera egiten dabe, muturra okertuz... Gu, barriz, areik ikustean, lorde-jario jartzen gara. Baiña, ekarri dagiezala Txina'n ain maite dituen arrautz ustelak, txori-ziriñak eta lurreko mozorroak, ea zer aurpegi ipintzen dogun...!

Ez giñan aretara oituak.

Aurtzaroan jandakoak, gaur gogokoak doguz.

Ori ez da otorduetan bakarrik gertatzen; beste gauzetan be bai.

\* \* \*

Juantxo-txikiri onak diran ekintzak egin-arazo. Orrelan asten gara bere biotzean onbide guztien aziak ereiten, bere barruko baratzetan onaren landare barriak aldatzen.

Sikolojiak erakusten dauanez, biotz tristeak aurpegi tristea dakar beragaz; baña, alderantziz be bai: aurpegi tristek biotza tristetzen dausku; aurpegi alaiak biotza alaitzen dausku. Beraz, egizu barre gogo barik, barre gogoz egin dagizun.

Gauzea orrelan izanik, egintza onak sentipen onak sortuko ditu umearen biotzean; egintza txarrak, sentipen txarrak. Gure umetxoak egite onak egiten ba'ditu, naiz eta sentimentu onaren jabe oraindik ez izan, egite on orrein bitartez, sentimentu onaren jabe egingo jaku.

\* \* \*

Norbereburukeriak ba-ditu umetxoak be. Nai dabena lortzeko, badakie ondotxo nondik jo gure umeez eta nai dabena lortzen ez ba'dabe, arrantza jo astotxoan antzera. Izketan baiño lenago ikasiko dabe ori.

Ez zuen bururik bigundu.

Zuen erabagiari eutsi, burubide onekoa ba'da.

Juantxo-txikiren naira ez zuen buruak makurtu.

\* \* \*

Makurtzen ba'zara, nai dauzanak eta bost egiten oituko da eta egunen baten illargia berbera eskatuko dautzu. Orduan izango dira zure burumiñak.

Umearen gogo guztiak betetzen dabezan gurasoek Juantxo-txikiren okerrerako dabiltz lanean. Onak uste izango du bera dala munduaren ardatza eta bere gogora makurtu bearko dabela beste gogo guztiak.

Egoista utsa.

Seme-alaba bakarreen arriskua.

Anai-arreba asko diran etxean bakoitzak bere buruari uko egiten errezago ikasten dau, beste guztien eskubideak errespetatuz...

Munduak ardatz asko dauzala.

Ez dala Juantxo-txiki munduaren ardatz bakarra.

Ba-dirala bere inguruan Miel-txiki, Mari-txiki eta Peru-txikirik asko, munduaren ardatz izateko berak aiña eskubide dabenak.